



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko maiatzaren 5a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/ITP-00020. Interpelazioa, etxebizitzaren arloan udalaz gaindiko eragina duten sektore-planei buruzko politika orokorrari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (3. or.).
- 11-26/ITP-00021. Interpelazioa, mendekotasunaren eta iraupen luzeko zainketen arloko politika orokorrari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00154. Galdera, trans pertsonentzako administrazio-agiriak emateko modua arautzeko prozedura egokitzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (5. or.).
- 11-26/POR-00155. Galdera, enplegu-erregulazioko espedienteetan lan-agintaritzaren baimena berreskuratzeko neurrii buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (5. or.).
- 11-26/POR-00156. Galdera, Nafarroak CANASARI emandako etorkizuneko erabileren maileguaren itzultzea 2068ra arte atzeratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (6. or.).
- 11-26/POR-00157. Galdera, alokairu-kontratuen ezohiko luzapena indargabetzeari eta horrek Nafarroako maizterrengan duen eraginari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (7. or.).
- 11-26/POR-00158. Galdera, 2026ko lehen hiruhilekoari dagozkion Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (8. or.).
- 11-26/POR-00159. Galdera, Nafarroako osasungintzaren funtzionamenduari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (9. or.).
- 11-26/POR-00160. Galdera, publikoki seinalatu ondoren medikuei publikoki barkamena eskatzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).
- 11-26/POR-00161. Galdera, itxaron-zerrenden murrizketari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (10. or.).
- 11-26/POR-00162. Galdera, Irango gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko alokairurako neurrii buruzko 8/2026 Errege Lege-dekretua ez baliozkotzearen ondorioz Nafarroako maizterrek izanzen duten egoerari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (10. or.).

- 11-26/POR-00163. Galdera, osasun-etxeetako ilaren ardurari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (11. or.).
- 11-26/POR-00164. Galdera, azken albisteen aurrean Osasun Departamentuak hartu beharreko neurri eta planei buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (11. or.).
- 11-26/POR-00165. Gaurkotasun handiko galdera, osasun-sisteman gertatzen ari denaren ardura politikoari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- 11-26/POR-00166. Galdera, Osasun Zuzendaritzak 2025eko abendua baino lehenagoko ustezko lan- eta/edo sexu-jazarpenen kasuak ez ezagutzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 11-26/POR-00167. Galdera, Irango gerra dela-eta, Ekialde Ertaineko krisiaren ondorioz lehen sektorean eta nekazaritzako elikagaien industrian dauden eraginei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- 11-26/POR-00168. Galdera, Nasuvinsak bultzatutako etxebizitza-sozietate mistorako kide pribatua hautatzeko prozesuari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00169. Galdera, osasuneko alorreko aldaketei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-26/POR-00170. Galdera, Nafarroako Volkswageneren ekoizpena handitzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (14. or.).
- 11-26/POR-00171. Galdera, nafarren presio fiskalari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (15. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/ITP-00020. Interpelazioa, etxebizitzaren arloan udalaz gaindiko eragina duten sektore-planei buruzko politika orokorrari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako interpelazioa, etxebizitzaren arloan udalaz gaindiko eragina duten sektore-planei buruzko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, etxebizitzaren arloan udalaz gaindiko eragina duten sektore-planei buruzko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten du.

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

11-26/ITP-00021. Interpelazioa, mendekotasunaren eta iraupen luzeko zainketen arloko politika orokorrari buruzkoa

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako interpelazioa, mendekotasunaren eta iraupen luzeko zainketen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru-parlamentari Isabel Aranburu Berguak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau egin dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafrancari, maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Etengabeko kezka sortzen du gure erkidegoan mendekotasuna duten edo izan dezaketen pertsonen arretarekin zerikusia duen orok; haien etxean bizi ala egoitza-zentro batean bizi.

Horregatik, mendekotasunari eta iraupen luze-ko zainketen gaineko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00154. Galdera, trans pertsonentzako administrazio-agiriak emateko modua arautzeko prozedura egokitzeari buruzkoa*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, trans pertsonentzako administrazio-agiriak emateko modua arautzeko prozedura egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan apirilaren 23an, Nafarroako Gobernuak trans pertsonentzako administrazio-agiriak emateko modua arautzeko prozedurari ekin zion.

Administrazio-agiri horiek dira foru-araudiak jasotzen duen aukera bat euren izenaren aipamena Erregistro Zibilean aldatu ez duten trans pertsonentzat.

Zer aldatuko da zehazki agiri-egokitzeapena lortzeko egungo izapideetan?

Iruñean, 2026ko apirilaren 23an

Foru-parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-26/POR-00155. Galdera, enplegu-erregulazioko espedienteetan lan-agintaritzaren baimena berreskuratzeko neurriei buruzkoa*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, enplegu-erregulazioko espedienteetan lan-agintaritzaren baimena berreskuratzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zalantzarik gabe, enpleguaren babesa jardueira ekonomikoaren sustapenerako politika publikoaren zati ezinbestekoa da, zehazki, kalitatezko enpleguaren babesa.

2012ko lan-erreforma –Alderdi Popularrarena–, 2008ko krisi finantzarioaren ondorioek eragin zuten “shock” egoera baliatuta ezarri zena garai hartan aplikatu ziren austeritate-politiken esparruan, enpleguaren kalitatearen eta haren babesaren –enpresen bideragarritasuna bermatzeko modu gisa– debaluazioaren aldeko apustu argia izan zen. Erreformen jasotzen ziren neurrietatik eztabaidagarrienetako bat hau izan zen: enplegu-

erregulazioko espedienteetan lan-agintaritzaren baimena kentzea.

Nazioartean gero eta ziurgabetasuna handiagoa bizi dugun testuinguru honetan, negoziazio kolektiboa funtsezko tresna da enpresak etengabeko eta ustekabeko eraldaketara loturiko baldintza ekonomikoetara egokitu daitezen ahalbidetzeko. Halaber, negoziazio-esparrua egokitzea ezinbestekoa da lan duina bermatzeko, langileak egiazki babestuko dituzten eta modu orekatuan enpresen eraginkortasunerako eta jasangarritasunerako lagungarriak izanen diren lan-baldintzak ziurtatuta.

Hori dela eta, honako galdera hau egiten dut:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua neurririk garatzen ari al da enplegu-erregulazioko espedienteetan lan-agintaritzaren baimena berreskuratze aldera?

Iruñean, 2026ko apirilaren 27an

Foru-parlamentaria: Txomin González Martínez

11-26/POR-00156. Galdera, Nafarroak CANASari emandako etorkizuneko erabileren maileguaren itzultzea 2068ra arte atzeratzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Nafarroak CANASari emandako etorkizuneko erabileren maileguaren itzultzea 2068ra arte atzeratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den apirilaren 21ean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (MITECO) eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Negoziazio Batzordea bildu zen. Bilera horretan, “Nafarroako Ubidea gauzatzeko eta finantzatzeko hitzarmenaren testua adostu zen, eta, zehazki, azpiegitura osatzekoa, egiteke dagoen bigarren fasea eraikita”.

2013ko abuztuaren 28an, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako Ubidea eraikitze elkarren arteko lankidetzak hitzarmena gaurkotzeko hirugarren akordioa izenpetu zuten. Bosgarren klausulan, Nafarroako Gobernuak adierazten du konpromisoa hartzen duela 2013tik 2026ra bitarte diru-aurrerakin bat egiteko Canal de Navarra SA sozietateari, "Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak" kontzepturako, aurreikusirik, halaber, Canal de Navarra SA sozietateak aurrerakin hori itzuliko diola Nafarroako Gobernuari 2027. urtetik 2040. urtera bitarte, urtean ehuneko hiruko interes sorrarazita, eta zorra lehenago amortizatu ahal izanen duela funtsik egonez gero.

Horretarako 35/2013 Foru Legea onetsi zen, azaroaren 26koa, zeinak ezartzen baitu, batetik, zein urtaldiri egotziko zaien Nafarroako Gobernuak Canal de Navarra SA sozietateari "Nafarroako Ubidearen etorkizuneko erabilerak" kontzepturako ematea hitzartua duen diru-aurrerakinaren finantza-gastua (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Nafarroako Ubidea eraikitze lankidetzak hitzarmenaren gaurkotze-agiriaren bosgarren klausularen araberrako diru-aurrerakina),

eta bestetik, 8.500.000 euroko kreditu berezia emanen dela 2013ko gastuak finantzatzeko.

Prentsa-ohar ofizialean adierazi zenez, "2014an harpidetutako etorkizuneko erabileren aurrerakin ekonomikoari dagokionez, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartzen du baldintzen aldaketa bat izapidetzeko, eta, horrela, Canal de Navarra SA Estatuko Merkataritza Sozietateak aurrerakin ekonomiko hori Nafarroako Foru Komunitateari itzuliko dio 2055. urtetik 2068ra bitartean, eta % 2,50eko interesa sortuko du aldaketa hori onartzen den ekitalditik aurrera. Orain arte, Nafarroako Gobernuak 75.650.000 euro jarri ditu, Canasaren finantzaketa-beharrei erantzuteko konprometitutako 77.000.000 euroetatik".

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dut, Osoko Bilkuran erantzun dakidan:

Nafarroako Ubidearen Bigarren Fasearen Proiektuko obrak finantzatzeko beharrezkoak diren 77 milioi horietatik, zergatik Estatuak ez du sozietatean duen partaidetzaren araberrak legokion % 60ko ekarpena egin behar?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-26/POR-00157. Galdera, alokairu-kontratuen ezohiko luzapena indargabetzeari eta horrek Nafarroako maizterrengan duen eraginari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, alokairu-kontratuen ezohiko luzapena indargabetzeari eta horrek Nafarroako maizterrengan duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kongresuan berriki egindako bozketaren ondoren, bertan behera geratu da alokairu-kontratuen ezohiko luzapena, zeina milaka maizterrentzako babes-mekanismo gisa funtzionatzen ari baitzen, bizitegi-merkatuaren tentsio handiko testuinguru batean.

Neurri horrek, aldi baterakoa izan arren, aukera ematen zuen errenta-igoera handiak saihesteko, bai eta kalteberatasun bereziko egoeretan edo etxebizitza alternatibo bat eskuratzeko zailtasun handiko egoeretan kontratuak amaitzea saihesteko ere.

Indargabetzeak ziurgabetasun juridiko eta materialeko egoera bat dakar familia askorentzat; izan ere, beren kontratuen goranzko berrikuspenen edo ohiko etxebizitzaren galeraren eraginpean egon daitezke berehala, alokairua eskuratzeko gizarte-arazo nagusietako bat izaten jarraitzen duen testuinguruan.

Nafarroan, non alokairuaren merkatuak ere tentsio handiak pairatzen dituen, bereziki garrantzitsua da erabaki horren irismen zehatza ezagutzea.

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten dut, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuaren ustez, zenbat nafarri eraginen die alokairu-kontratuen ezohiko luzapen horren indargabetzeak, eta zein egoera juridiko zehaztuz geratuko dira Nafarroako maizterrak hemendik aurrera?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-26/POR-00158. Galdera, 2026ko lehen hiruhilekoari dagozkion Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, 2026ko lehen hiruhilekoari dagozkion Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Apirilaren 28an, Estatistikako Institutu Nazionalak Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak argitaratu ditu, 2026ko aldi baterako ezintasunari dagozkionak. Datu horien zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2026ko apirilaren 28an

Foru-parlamentaria: Maribel García Malo

11-26/POR-00159. Galdera, Nafarroako osasungintzaren funtzionamenduari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroako osasungintzaren funtzionamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2026ko maiatzaren 7ko Osoko Bilkurarako galdera arrunta.

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Zer egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak Nafarroako osasungintzak ondo funtziona dezan?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/POR-00160. Galdera, publikoki seinالاتu ondoren medikuei publikoki barkamena eskatzeari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, publikoki seinالاتu ondoren medikuei publikoki barkamena eskatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Medikuei publikoki barkamena eskatzeko asmo-rik ba al duzu, horiek publikoki seinالاتu ondoren?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/POR-00161. Galdera, itxaron-zerrenden murrizketari buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, itxaron-zerrenden murrizketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartzea aurreikusten duzu itxaron-zerrendak murrizteko, kolektiboa seinaltzearen aurkako protesta gisa hainbat zerbitzu medikok aparteko lanaldiak egiten jarraitzeari uko egin ondoren?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/POR-00162. Galdera, Irango gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko alokairurako neurriei buruzko 8/2026 Errege Lege-dekretua ez baliozkotzearen ondorioz Nafarroako maizterrek izanen duten egoerari buruzkoa*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Irango gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko alokairurako neurriei buruzko 8/2026 Errege Lege-dekretua ez baliozkotzearen ondorioz Nafarroako maizterrek izanen duten egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Joan den apirilaren 28an Diputatuen Kongresuan Irango gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko alokairurako neurriei buruzko 8/2026 Errege Lege-dekretua bozkatu eta gero:

Zer egoeratan geratzen dira Nafarroako maizterrek dekretua ez baliozkotzearen ondoren?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-26/POR-00163. Galdera, osasun-etxeetako ilaren ardurari buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, osasun-etxeetako ilaren ardurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Telebistako elkarrizketa batean, osasun-etxeetako ilarak zuzendarien ardura eskusiboa direla eta ez zurea esan zenuen. Horri eusten al diozu?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/POR-00164. Galdera, azken albisteen aurrean Osasun Departamentuak hartu beharreko neurri eta planei buruzkoa*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, azken albisteen aurrean Osasun Departamentuak hartu beharreko neurri eta planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Esparru publikora jauzi egin duten Nafarroako osasunari buruzko azken berriak sekulako kezka egoera eragiten ari dira herritarren artean.

Zer balorazio eta plan ditu departamentuak egoera horren aurrean?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-26/POR-00165. Galdera, osasun-sisteman gertatzen ari denaren ardura politikoari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, osasun-sisteman gertatzen ari denaren ardura politikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eleldun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2026ko maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran, heldu den ostegunean, ahoz erantzun dezan:

Kontseilariarengan duzun konfiantzari eusten diozu eta, beraz, osasun-sisteman gertatzen ari denaren erantzukizun politikoa zure gain hartzen duzu?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-26/POR-00166. Galdera, Osasun Zuzendaritzak 2025eko abendua baino lehenagoko ustezko lan- eta/edo sexu-jazarpenen kasuak ez ezagutzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Osasun Zuzendaritzak 2025eko abendua baino lehenagoko ustezko lan- eta/edo sexu-jazarpenen kasuak ez ezagutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Zuzendaritzak ez zekien, 2025eko abenduan publiko egin zen salaketaren aurretik, Nafarroako Osasun Zerbitzuan ustez zerbitzuburu batek egindako lan- eta/edo sexu-jazarpeneko kasuren bat zegoela. Horri eusten al diozu?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

11-26/POR-00167. Galdera, Irango gerra dela-eta, Ekialde Ertaineko krisiaren ondorioz lehen sektorean eta nekazaritzako elikagaien industrian dauden eraginei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Irango gerra dela-eta, Ekialde Ertaineko krisiaren ondorioz lehen sektorean eta nekazaritzako elikagaien industrian dauden eraginei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko kontseilari José Mari Aierdi jaunak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irango gerra dela-eta, Ekialde Ertainean sortutako krisia luzatzen ari da, eta eragin negatiboa izaten ari da Nafarroako funtsezko sektoreetan, besteak beste lehen sektorean eta nekazaritzako industrian. Horregatik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari galdetzen diogu: zeintzuk dira dagoeneko nabaritzen hasiak diren afekzio nagusiak Nafarroarentzat hain garrantzitsuak diren bi sektore horietan?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-26/POR-00168. Galdera, Nasuvinsak bultzatutako etxebizitza-sozietate mistorako kide pribatua hautatzeko prozesuari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Nasuvinsak bultzatutako etxebizitza-sozietate mistorako kide pribatua hautatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro Garcíak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan alokairu eskuragarriko etxebizitza babestuen parkea handitzeko premia larriaren testuinguruan, zertan da Nasuvinsak bultzatutako etxebizitza-sozietate mistorako kide pribatua hautatzeko prozesua, aurreikusitako epea amaitu ondoren?

Iruñean, 2026ko apirilaren 29an

Foru-parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00169. Galdera, osasuneko alorreko aldaketei buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, osasuneko alorreko aldaketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Lehendakari andrea, noizko aurreikusten duzu zure Gobernuko alor sentikorretan aldaketak egitea, Osasunekoan kasu?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 3an

Foru-parlamentaria: Javier García Jiménez

11-26/POR-00170. Galdera, Nafarroako Volkswagenen ekoizpena handitzeari buruzkoa*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Volkswagenen ekoizpena handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den astean, Volkswageneko zuzendari-tzak iragarri zuen 2027ra begira ekoizpen bolumen oso altuak lortzea aurreikusten duela, eta horrek 500-1.000 langile kontratatzea ekar lezakeela.

Nafarroako Gobernuaren ustez, zer inpaktu izanen du ekoizpenaren gehikuntza horrek gure erkidegoan, eta prozesu hori laguntzeko eta errazteko zer egitea aurreikusten du Gobernuak?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-26/POR-00171. Galdera, nafarren presio fiskalari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, nafarren presio fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2026ko maiatzaren 7ko Osoko Bilkurarako gaurkotasun handiko galdera.

Nafarroako Gobernuako lehendakaria:

Nafarroako Gobernuak ba al du nafarren presio fiskala arintzeko asmorik?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

